

# INPRIMATZEKO MATERIAL EZ ELASTOMEROAK

# EREDUA

- SAILKAPENA
- IGELTSUA
- ARGIZARIA
- ZINK EUGENOL OXIDOA

- Ameriketako Hortzen Elkartearen -ADA- sailkapena jarraituz, inprimaketa material ez elastikoak ikusiko ditugu gai honetan, nahiz eta gaur egun ez diren hortz kliniketan asko erabiltzen.

- AMERIKETAKO HORTZEN ELKARTEAREN (ADA) SAILKAPENA

- Ez elastikoak
  - Igeltsua
  - Argizaria
  - Zink eugenol oxidoa

- Igeltsua, argizaria eta zink eugenol oxidoa.
- Ez dira material biskoelastikoak (likatsuak).
- Igeltsua eta zink eugenol oxidoa material zurrinak dira.
- Argizariak material termoplastikoak dira.

# 1. IGELTSUA

- Ereduetako material bera da erabilera ezberdinekin.
- Inprimaketak protesik finkoan.
- Hozkadaren erregistroa.
- Inprimaketak positibatzeko.



- Inprimaketa gauzatzeko, ur/hautsa erlaziorik altuena duen igeltsua erabiltzen da, materiala arinagoa izan dadin eta xehetasunen erreprodukzioa edo kopia hobetu dadin.
- Lehenengo igeltsu mota erabiltzen da. Parisko igeltsuz osatuta dago, eta oinarri gisa hartutako igeltsu horri gehitzen zaizkio moldaketa, denbora eta hedapena erregulatzeko aldatzaileak.

- Bere **jariakortasuna** eta **hidrofilia** direla eta, igeltsuak oso inprimaketa zehatzak egiten ditu.
- Arazoa da, **zurruna** eta **hauskorra** denez gero, ahotik ateratzeko orduan inprimaketa hautsi behar dela.
- Inprimaketak **egonkortasun dimentsional** ona du.



- Beste igeltsu mota batekin positibatzen da.
- Igeltsuaren inprimaketa eta igeltsuaren eredia batu ez daitezenean, beharrezkoa da inprimaketa agente bereizle batekin pintzelkatzea, likido tentsioaktiboarekin esate baterako.
- Horregatik guztiagatik, igeltsua oso gutxi erabiltzen da Odontologian inprimatzeko.

## 2. ARGIZARIA

- Material termoplastikoa da, beroarekin bigundu eta hoztean gogortzen da.

# ERABILERA

Gaur egun, argizaria honakoetan erabiltzen da gehien bat:

- Protesi erauzgarri osoen lehen inprimaketan.
- Hozkadak erregistratzeko.
- Hortzik ez dagoen guneetarako inprimaketak egiteko edota dagoeneko egindakoak zuzentzeko.

# OSAGAIAK

• OSAGAIAK	ZATIAK
• Rosina edo Colofonia	30
• Kopal Erretxina	30
• Karnauba argizaria	10
• Esteariko azidoa	5
• Talko	75
• Pigmentuak	Aldakorra

# OSAGAIEN FUNTZIOA

- Rosina edo kolofonia.

Gogortasuna.

- Kopal erretxina.

Arintasuna eta kohesioa.

- **Karnauba argizaria.**

Ezaugarri termoplastikoa.

- **Estariko azidoa.**

Plastifikatzailea eta xukatzea areagotu.

- **Talko.**

Betetze materiala.

- **Pigmentuak.**

# SAILKAPENA

- Sailkapena fusio puntuaren araberakoa izango da.
- Fusio altu, ertain eta baxuan sailkatzen dira.
- **Fusio handikoak** 60°C-tik gora biguntzen dira. Kubetak egiteko erabiltzen dira eta beltzak edo zuriak dira.

- **Fusio ertainekoak** 50°C eta 60°C bitartean biguntzen dira. Inprimaketak hartzeko erabiltzen dira eta gorriak dira.
- **Fusio baxukoak** 50°C baino gutxiagoan biguntzen dira. Inprimatzeko material gisa erabiltzen dira. Tableta grisak edo berdeak izaten dira.



# EZAUGARRIAK

- **Eroankortasun termikoa**

Txikia da. Uretan edo suaren berotan, kanpoaldea biguntzen da lehendabizi, eta gero barruko aldea.

Hoztean, gauza bera gertatzen da.

Gogortu aurretik inprimaketa kentzen badugu, deformazioak sortuko dira.

- **Arintasuna**

Ehunetara egokitzea komeni da, xehetasunak ahal bezain zehatz erreprodukzitzeko.

- **Distortsioa**

Egitura amorfoa dutenez, manipulazioan distortsioak gerta daitezke tenperatura aldaketa eta materiala etengabe berotzean.

# BETEBEHARRAK

- Tenperatura baxuetan plastifikatzea.
- Ahotik ateratakoan egonkortasuna mantentzea.
- Kohesiboak izatea, baina ez itsaskorrek izatera igaro (adhesiboak).
- Ahoko tenperaturan gogortzea.
- Xehetasunen erreprodukzio ona egitea.
- Erre ondoren azalera leuna eta distiratsua izan behar dute.



# MANIPULAZIOARI BURUZKO OHARRAK

- Hobe da bero sikuan edo uretan biguntzea.
- Sua erabiltzen bada, kontuz: ez erre.
- Ez hoztu bat-batean.

# ABANTAILAK

- Aho barrutik erraz kentzen dira.
- Egindako inprimaketak zuzen daitezke.
- Manipulatzeko errazak dira.
- Eredutik erraz ken daitezke.
- Pazientearentzat erosoak dira.

# DESABANTAILAK

- Ehunak konprimitzen dituzte.
- Hoztean uzkurdu egiten dira.
- Ahotik kanpo deformatzen dira.
- Angelu itsuetan deformatzen dira.



Argizari plantxa




Godiba



Modelatzeko argizaria






Modelatzeko argizaria



Godiba ur berotan bigundu



Godiba banakako kubetan inprimaketa dinamiko bat egiteko

# 3.ZINKENOLIKO KONPOSATUAK

- Zinkenoliko pasta edo oxido metalikoak.
- Zink oxidoaren eta eugenolaren arteko konbinazioa.
- Odontologiako beste arlo batzuetan erabiltzen dira.
- Inprimaketetarako material zurrinak dira.
- Aho barruan gogortu egiten dira.
- Azaleko xehetasunak zehaztasunez erreplikatzeko erabiltzen dituzte.

# ERABILERA

- Bigarren mailako inprimaketetan.
- Protesi erauzgarri osoen azken inprimaketan.
- Oinarri plakak egonkortzeko dimentsio bertikaleko erregistroetan.
- Inkrustazioak, koroak, zubiak eta abar prestatzeko erregistro oklusaletan.

# OSAGAIAK

OINARRIA	%	AZELERATZAILEA	%
Zink oxidoa	80	Eugenol	12
Erretxinak	19	Gomoerretxinak	50
Magnesio kloruroa	1	Mineral olioa	6
		Silizea, betegarria	20
		Oliba olioa	16
		Lanolina	3
		Azeleratzailea	5
		Koloratzaileak	

# OSAGAIEN FUNTZIOA

- **Zink oxidoa.**

Konposatuaren oinarria da. Hauts zuria, arrunta, ur gutxirekin.

- **Eugenol.**

Azeleratzailea. Iltze esentziatik lortutako likido horixka, usain sarkorra, distiratsua, narritagarria.

- **Erretxina.**

Gogortze denbora bizkortzen du, oreka homogeneousatzen eta leuntzen.

- **Magnesio kloruroa.**


Azeleratzailea; ura, zink azetatoa eta zink sulfatoa bezalaxe.

- **Oliba olioak.**

Nahastean leuntasuna eta arintasuna ematen ditu.



# GOGORTZEKO ERREAKZIO KIMIKOA






- Ura funtsezkoa da gogortze erreakziorako.
- Lehenengo erreakzioa zink oxidoaren hidrolisia da.
- Hautsa erabat deshidratatuta badago, ateratzen den oreka ez da gogortuko.

# SAILKAPENA

- Lehenengo gogortze azkarra, 3-10 minutu.
- Bigarren gogortze geldoa, 3-15 minutu.

# GOGORTZE DENBORA ALDATZEN DUTEN ERGAILEAK



• Hauts partikula txikiak → Gogortze denbora



• Temperatura eta hezetasuna ↑ → Gogortze denbora



# EZAUGARRIAK

- **Sendotasuna**
- Lehenengo gogortzea: gogortu aurretik moldagarriak eta gogortu ondoren zurrinak eta hauskorrak mukosa biguna duten pazienteetan.
- Bigarren gogortzea: bigunak mukosa erresilentea duten pazienteetan.

- Egonkortasun dimentsionala
- Egonkortasun dimentsional aldetik egonkortasun gehien duen inprimaketa materiala da.
- Uzkurtu egiten da nahastu eta ondorengo 30 minutuetan.
- Gogortu ondoren, luzaroan eusten dio egonkortasunari.

# ABANTAILAK

- Dimentsioen egonkortasun ona.
- Manipulazio erraza.
- Ez ditu ehun bigunak ukitzen edo zanpatzen.
- Ehun bigunen leku aldaketa txikia eragiten du.
- Ez dute igeltsu eredueterako isolatzailerik behar.
- Xehetasunak garbi erreproduzitzen dituzte.

- Kubetari atxikitzen zaizkio.
- Erraz ken daitezke eredutik.
- Lan denbora egokia.



# DESABANTAILAK

- Narritagarria.
- Ezin da gaineratik inprimaketa gehiagorik jarri.

